# GORA GURE IKASTOLA!

1°alea
2026ko urria

Aurkibidea:

I-kastolako ekitaldiak
2-Abereak
3-Kirolak
4-Zientziak
5-Jokoak





## PINTXO GAUALDIA

Urriaren 15ean, pintxo gaualdi bat egin genuen. Arratsaldean Apelxenera joan ginen txirrindulez taldeka. Hiru talde baziren: lehenak salda bat egin zuen kuia, batata eta azarekin. Bigarrenak pintxoak egin zituzten ogi xerra batzuen gainean, batata, aza, pastanarria eta beterraba eta gasna freskoarekin egin saltsa. Azken taldeak krunbel bat egin zuen sagar konpota, olo maluta, mahats pasa, aztigar ziropa eta kanelarekin.

Mozkina guztiak lekukoak ziren.





Maddi

## SUKALDARITZA IKASTOLAN

Peiorekin astelehenetan nahi dutenek egiten ahal dute sukaldaritza.
Egin aintzin izena eman behar da.
Guri delarik frantses gelara abian gira pastaren prestatzeko.
Lehenik etiketak irakurri, osagaiak bildu,materiala prestatu eta sustut eskuak garbitu!
Ondotik osagaiak ontzi batean emaiten ditugu bukatu eta Peiok bere etxera ekartzen du pasta erretzeko.
Asteartean egin biskotxak jaten ditugu atsaskarian.

Dioni

## Mahats biltzea Apelxenian

Irailaren 11an mahats biltzea egin ginuen Miren Laxaguen laguntzarekin.



Apelxeneko mahastira txirrindulez joan ginen eta 10etan arribatu ginen. Mahatsaren biltzeko binaka eman ginen,haundi bat ttipi batekin. Ondotik Apelxeneko sotoa bisitatu ginuen eta ondoren mahats jusa eskaini zaukun Mirenek. Mahats jusa bordalesarekin egina zen, sukratua zen.

Ihitz

## Mahats tinkatzea ikastolan



Mahats biltzean, hiru mahats balde hartu genituen ikastolan mahats jusaren egiteko. Mahats golkoak bihitu genituen. Aldudeko Alastainetik fruitu tinkatzailea prestatu zigun Eztitxu Sabarotsek.

Mahats pikorrak tinkatzailean eman genituen, taula batzuk gehitu genituen pikorren gainean eta jusa ateratzen zen tinkatzailetik. Orotara 5 litro mahats jus atera genituen.



Ihitz

## KIROLA IKASTOLAN

Goiz guziz 08:45etik09:00ra kirola egiten dugu:Itzuli bat korrika Azkarateko karrika gaixtotik plazara eta gero ikastolara sartzen gira.
Batzutan gaztelura abian gira.
Gero yoga egiten dugu ikastolan luzaketak,kalmatzeko.
Kirolatik landa lasai senditzen gira eta erneago gira lanean.
Euria egiten duelarik aterbean plantxa egiten dugu.

Ainhoa

## GORPUTZ ADIERAZPENA ETA LASAIKETA OIHANEAN



Urriaren 9an:Lorea Mentaberri ikastolara jin zen. Antxisketa oihanera yoga kurtso baten egitera. Hastapenean izenak erran genituen gero gorputz adierazpena egin genuen begiak hetsirik. Berantago lasterka egin behar zen eta erraiten zuelarik hostoa antzinean zena kopiatu behar genuen. Gero berriz lasterka egin behar genuen eta berriz erraiten zuelarik hostoa berriz kopiatu behar genuen. Bukaeran, erakasleek arbol baten enborra egin zuten eta gu hostoak ginen enborrari lotuak.

Ainhoa



## KANGURUKUMEA

Kangurukumea sortzen delarik ttipi-ttipia da.



Ilar baten tamaina du.

Sortzen delarik fite fite bere amaren poltsan sartzen da.

Urte batez egonen da amaren poltsan. Poltsan amaren titieatik edaten du esnea.

Hiru hilabete izanen duelarik aterako du bere burua lehen aldiko.
Poltsan goxo goxoki da berokian.

Emma

## PINGUINOA

30 zm tik 110 zm arteko altuera dute.
35 kilogramo pisatzen dute. Arrain txikiez elikatzen dira eta haien kumeer emaiten dituzte.
Pinguino arra abian da bi hilabetez eta emea egoiten da bere kumeekin.
Pinguinoak bizi dira leku hotzetan: Antartikan, Hego Amerika hegoaldean, Afrikan eta Australia hegoaldean.

Lutxi

## POTTOKAK

Pottoka Euskal Herriko berezko eta bertako zaldi arraza bat da.

Bere jatorria oso aspaldikoa da.

Euskal Herriko mendietan libre bizi izan den aberea da hau, negu gorrian ukuilua zapaldu gabe eta gizakiak emandako zaintza eta bazkarik gabe irauteko gai dena.

Euskal esaera zahar batek pottoken basatasuna azpimarratzen du : « *pottokak mendian ez dira heziak*. »

Zaldi horren ezaugarri orokorrei dagokienez , ondo osatutako aberea da, neurri ertain eta proportzionatuak ditu eta gorputz gihartsu eta sendoa.

Izaeraz, azkarrak, gogorrak eta bezatuz gero, jabearegiko oso leialak dira.

Euskal Herrian bertako beste hainbat zaldi arraza egon arren, geihenek neurri batean edo bestean pottoka arbasotzat dute.

Zoe Alaia

# Hartz xuria



Nortasun agiria

Izena : hartz xuria

Goratasuna :3m

Familia :ugaztuna

Pisua :arrak :400-600 kilo eta emeak :150-300 kilo

Izen zientifikoa :ursus maritimus

Zer jaten du ?

Hartz xuriak itsas xakurrak baizik jaten ditu

Ugalketa :

Hartz emeak nini bat badu tripan hiru urteetan behin .Usu bi hartz kume ditu.

Bizimodua :

Hartz xuriak neguan ibernatzen du ibernatzen duenean bere bihotz taupadak ttipitzen dira eta ez du jaten.

# Ahatea



**Nortasun agiria**

Izena : Ahatea

Goratasuna : 2m

Familia : hegazti

Pisua : 400kg

Izen zientifikoa : Anas bahamensis

**Elikadura : zer jaten du**

**Landare eta animale txikiak .**

**Ugalketa :**

Ahateak arroltzetik sortzen dira .

**Bizimodua:lakuetan bizi da .**

Bizilekua : Euskal Herrian .

Maiena

# Lehoina

**Nortasun agiria**

Izena : Lehoina

Goratasuna :arrak 2,50 emeek 1,75

Familia : felide

Pisua :arrak 250 kilo emeek 180 kilo

Izen zientifikoa :panthera leo

**Elikadura : zer jaten du ?**

**Haragijalea : gazelak eta zaldi marratuak**

**Ugalketa : ugaztuna da eta poligamoa da**

**Bizimodua :elgarrekin bizi dira**

**Bizilekua :afrikan bizi da**

**Ezti**

Axeriak

Axeria animalea ugaztuna da. Axeriak 60 eta 80 zentimetroko goratasuna du.
6 eta 7 kilo artean pisatzen du. Xakur ttipi bat iduri du.
Buztanak 40 zentimetro inguru neurtzen du.
Belarri xorrotxak ditu, entzumen bikaina du eta gauez biziki untsa ikusten du .
Fruituak, oiloak eta intsektuak jaten ditu .




Laida

# ESKU PILOTA

Euskal pilota Euskal Herriko kirola da. Banaka edo binaka jostatzen ahal da. Pilotan aritzeko trinketan edo plazan jostatzen da pilota batekin. Eskuaren gainean takoa bat emaiten du pilotariak.

Joko arauak

Sakean zortea baliazten dugu jakiteko nor den hasten. Jokoan Urdinak gorrien kontra ari dira . Sakea egitean pilotak falta marraren gainetik pasa behar du.
Partida 16 edo 18 edo 22 tantotan izaiten da.



Pilotari ospetsuenak hauek dira: Jokin Altuna, Unai Laso, Aitor Elordi, Peio Etxeberri eta Amaia Aldai .

Aimar

# GIMNAZTIKA

Gimnaztikan malgutasuna, indarra eta oreka lantzen da.

Gimnaztikan 4 agre delako badira: barra asimetrikoak, pitraila, zola eta zaldi saltoa.

Pitrailan oreka lantzen da, zolan figurak eta koregrafia ikasten dira.

Zolan egiten diren figurak hauek dira: rondad flip zalto, esku salto aintzinka,

valse ( piketa itzuliz ) eta guzi. Barretan egiten diren figurak hauek dira:

salto airean gibelka, bazkul, zangoak pausatu, papagaioa, itzuli barraren inguruan eta guzi.

Gero hori guzia ikasi eta lortua duzularik konpetizioak egiten dira.

Konpetizioa bukatua delarik palmarreza egiten da eta medailak ukaiten dituzte batzuek.



Uxue Lur

# ZANGO BALOINA

Zango baloina baloina batekin jostatzen da. Arauak sinpleak dira: baloina terreinutik ateratzen bada kanpo da. Deretxo da taklatzea baina ez gibeletik. Kaioletaz urrun baldin bada jaurtiketa libroa da eta kaioletaz hurbil bada penalti da. Jokoz kanpo ez da deretxo : eta jokoz kanpo da ataka defentsaren gibelean delarik. Munduko kirola pratikatuena da eta diru geihen mugitzen duen kirola da. 1863. urtean bere historia hasi zen Football Association ( FA ) elkartea Ingalaterran sortu zenean.

Baina zango baloina jokatzen hasi zen Erdi Aroan konkretuki britaniar uharteetan.



Xanti

# MAROKO

## GEOGRAFIA

Maroko herri bat da, Afrika iparraldean. Itsasoa bada iparrean eta mendebaldean, ekialdean mendia.

Hegoaldean bada basamortu handi bat :Mendebaldeko Sahara du izena. Harat joaiteko hegazkinez 2oren behar dira Espana gainetik pasatuz. Hiriburua Rabat da.

## ELIKADURA

Biziki ongi jaten da Marokan. Barazki eta fruitu ainitz jaten dira:Barbariko pikoak, datak,iranjak, grenadak. Sukaldatzen dute ainitz atzarki,oilasko,arraina izan errea buletetan edo tajinean. Ez dute xerrikirik jaten.

## URA

Hiri batzuetan ez dute beti edateko ur onik. Makurago da herri ttipietan. Sahararen sartzean duela 11a urte ez dutela ikusi egiazko euririk. Badelarik ur pixka bat “oasis” deitzen da landareak badira eta etxeak ere bai lurrez eginak dira.

Ihitz

Ihitz

# LURRAREN SORTZEA

Hastapenean ez zen ezer baina bat – batean Big Bang erraldoi bat gertatu zen: unibertso ttiki bat sortu zen 15 mila milioi urte. Unibertso hori haunditzen hasi zen. Unibertsoa galaxiaz osatua da, 3 mota dira: galaxia kiribilak, galaxia eliptikoak, kumulu globularrak.
Galaxia horietan gure Eguzki sistema sortu zen.Eguzki sistema izar baten inguruan sortu da: Eguzkia. Inguruan 8 planeta ditu: merkurio, artizarra, lurra, marte, jupiter,saturno, urano, neptuno.
Eta gero ura etorri da eta urarekin bizitza etorri da.



Amaiur

# NOLA SORTZEN DIRA SU MENDIAK ?

Gure lur planeta, azala desberdinez osatua da. Lehenik lurrazala ondotik mantua eta magma. Plaka tektonikoak buruhauste piezak bezala dira, mantuaren gainean flotatzen dute, elkar hunkituz. Bi plakek elgar hunkitzen duten tokian sortzen dira sumendiak. Plaka bat bata bestearen azpian pasatzen denean magma bi plaken artean lerratzen da eta hola sortzen dira sumendiak. Bero egiten du !
Pako



## Planetak

| S | Q | U | M | S | Z | S | A | D | T | R | N | L | B |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Y | Z | A | J | H | Q | V | Z | P | O | W | E | L |
| T | F | A | R | F | A | R | T | I | Z | A | R | R | A |
| U | A | Q | T | Y | F | U | M | O | A | M | E | K | L |
| R | L | M | E | Y | Z | P | N | M | G | Y | P | W | F |
| N | B | F | N | P | L | U | R | R | A | T | P | V | J |
| O | X | L | X | I | B | L | B | L | N | K | Y | N | G |
| C | V | H | X | L | J | P | C | B | Z | F | F | G | J |
| Y | H | P | N | E | P | T | U | N | O | T | U | T | U |
| J | T | A | B | D | U | C | R | O | A | U | I | W | P |
| E | A | U | Y | H | P | U | Q | Y | M | R | I | H | I |
| A | Z | L | T | Y | O | Y | F | C | N | A | D | F | T |
| U | D | I | C | K | U | L | V | B | A | N | Z | P | E |
| M | E | R | K | U | R | I | O | P | H | O | U | D | R |

MERKURIO
LURRA
JUPITER
URANO
ARTIZARRA
MARTE
SATURNO
NEPTUNO

## Asmakizuna

Arkatza bat badu baina ez da ikaslea.

Odinagailu bat badu baina ez da saltzailea.

Liburuak baditu baina ez da liburuzaina.

Nor da?




320
157
80
42
41
23
15
11
8
12
9
6
3
4
Lara

# GOIZETAN KANTATZEN DITUGUN KANTUAK

## Bidasoatik harago

Xabi Solano

Bidasoatik harago
Euskal Herri bat ere badago
Bihurtzen ari zaiguna
Geroz eta arrotzago
Mugak sortu zizkiguten
Gu sortu baino lehenago
Ta muga horiek haustea
Gure eskuetan dago (bis)

Izango gara besteen
Geroz eta menpekoago
Erdaraz mintzo bagara
Euskaraz baino gehiago
Ezin ahaztu nor garen
Eta nor ginen lehenago
Bidasoatik harago
Euskal Herri bat badago (bis)

Bidasoatik harago
Euskal Herri bat badago
Euritan ederra dena
Ta eguzkitan gehiago
Nahiz eta urteak joan
Nahiz eta mendeak igaro
Ez da gure nortasuna
Galdu dugunik esango (bis)

Elkartzen gaituna dugu
Askozaz ere nahiago
Dantza eta kantuekin
Gaudelako hurbilago
Nahiz jo hegoalderago
Nahiz jo iparralderago
Bidasoatik harago
Euskal Herri bat badago (bis)

## Guk euskaraz

Urko/Aresti

Euskara
putzu sakon eta ilun
bat zen

eta zuek denok
ur gazi bat atera zenuten
handik nekez.

Guk
euskaraz.
Zuk
zergaitik
ez?

Orain zuen birtutez
zuen indarrez

Euskara
itsaso urdin
eta zabal bat
izanen da
eta guria da.

Guk
euskaraz.
Zuk
zergaitik
ez?

Euskara
putzu sakon eta ilun
bat zen

eta zuek denok
ur gazi bat atera zenuten
handik nekez.

Guk
euskaraz.
Zuk
zergaitik
ez?

Orain zuen birtutez
zuen indarrez

euskara
itxaso urdin
eta zabal bat
izanen da
eta guria da.

Guk
euskaraz.
Zuk
zergaitik
ez?

## Nire gorputza da

Kantu kolore

Berritsu-isilak, polit-itsusiak,
argal-lodi, ilun-argi, altu-bakuak,
elbarri eta itsu, gor edo mutuak.
Denak ezberdinak, eskubide berberak.

Gorputz eta izaera bakarrekoak gu,
nork bere burua maitatu,
nik badakit zer nahi dudan, zer egingo dudan,
aukera nirea izango da!

Nire gorputza da
aske eta librea,
nahi dudan moduan,
maite dudan munduan.

Elkartu, sentitu, nahi duzunarekin.
Zer lagunekin batu, aukera zeuk egin.
Zure desio eta zaletasunekin
aurrera egin maitatzen zaituztenekin.

Gorputz eta izaera bakarrekoak gu,
nork bere burua maitatu,
nik badakit zer nahi dudan, zer egingo dudan,
bidea nirea izango da!

Nire gorputza da
aske eta librea,
nahi dudan moduan,
maite dudan munduan.

Guk
euskaraz.
Zuk
zergaitik
ez?

Orain zuen birtutez
zuen indarrez

euskara
itxaso urdin
eta zabal bat
izanen da
eta guria da.

Guk
euskaraz.
Zuk
zergaitik
ez?